

**LAN-POLTSA HANDITZEKO
HAUTAKETA-PROZESUA:
“KUDEAKETAKO ESKALA TEKNIKOA
(KUDEAKETA OROKORRA)”**

BIGARREN PARTEA – PRAKTIKOA

2019ko OTSAILAREN 1eko EBAZPENA

1. Kasu praktikoa.

Aitziber Gisasola Garai Ingeniaritza Elektronikoko eta Automatikoko Gradu ikasketak egiten hasi zen Balentziako Unibertsitate Politeknikoan 2016/2017 ikasturtean, eta bi ikasturte akademiko baino gehiago gaitu ditu han. Familiako kontuak direla eta, Aitziber Gasteizera joango da. Beraz, UPV/EHUko Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradu ikasketekin jarraitu nahi du 2019/2020 ikasturteetik aurrera.

Lagun batek esan dio unibertsitate-ikasketa ofizialak beste unibertsitate baten hasi baditu, UPV/EHUren gradu batean jarraitu ahal izateko, lekualdatzea eskatu behar duela ikasi nahi duen ikastegian.

Eskaerak aurkezteko epean Aitziber Valentzian dago, eta haren ama, Laura Garai, joan da Gasteizko Ingeniaritza Eskolara izapideak egitera.

Izapideak egiteko azken egunean, Laura Garaik onartze-eskaera egin nahi du Aitziber alabaren izenean, Ingeniaritza Eskolako idazkaritzan. Idazkaritzan esan diote berariazko inprimakia bete behar duela. Inprimakia bete duenean, unibertsitateak eskaeraren izapidea onartu du.

Unibertsitatean sartzeko eskabidea aurkeztean, Laura Garaik erantsi du Aitziberren Ziurtagiri Akademiko Pertsonala, ziurtatzeko Aitziberrek gaitu duela Ingeniaritza Elektronikoko Gradu lehenengo maila (Valentziako Unibertsitatea).

UPV/EHUren araudiari jarraituz Ziurtagiri Akademiko Pertsonalaren jatorrizko dokumentua aurkeztu behar denez, Ingeniaritza Eskolak erabaki du atzera botatzea Aitziberren eskaera, jatorrizko dokumentua ez aurkezteagatik eskaerak aurkezteko epean.

Aitziberrek Ingeniaritza Eskolako ebazpena jaso duenean, errekurtsioa jartzea erabaki du, uste baitu bere eskaera ez dela behar bezala izapidetu.

Idazkia arrazoitzeko, Aitziberrek kontsultatu nahi du bere espedienteko dokumentazioa, eta haren kopia bat egin nahi du; baina Ingeniaritza Eskolako idazkaritzan esan diote ez dela posible ez delako bukatu Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradura sartzeko eta onartzeko prozesua.

Aitziberrek gauza bera eskatzen jarraitu du, eta idazkaritzan artatu duen langileak behin eta berriz iraindu du, gauza larriak esanez. Unibertsitateko langileak eman dion tratua dela eta, Aitziberrek keza bat aurkeztu du. Ingeniaritza Eskolako zuzendariak, gertatutakoa ikusita, uste du ez dela onargarria unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionario batek halako jarrera izatea, eta neurriak hartu nahi ditu.

Erantzun galderei modu arrazoituan eta aplikatu beharreko araudiari erreferentzia eginez:

1. Aitziberri lagunak esan dio, unibertsitate-ikasketa ofizialak beste unibertsitate baten hasita dituzenez, UPV/EHUren gradu batean jarraitu ahal izateko, lekualdatzea eskatu behar duela ikasi nahi duen ikastegian. Zuzena da lagunak esan diona?
2. Laura Garaik (Aitziberren ama) aurkez dezake lekualdatzea dela-eta onartzeko eskaera alabaren izenean eta hura ordezkatzuz, horretarako ahalorderik izan gabe? Ezin badu, idatzia ez onartzea zegoen UPV/EHUri?
3. Unibertsitateak exijitu dezake Laura Garaik onartze-eskaera inprimaki espezifiko erabiliz egitea?

4. Ikastegiak atzera bota du Aitziberren lekualdatze-eskaera, Ziurtagiri Akademiko Pertsonalaren (ZAP) jatorrizko dokumentua ez aurkezteagatik. Egokia da ZAParen jatorrizko dokumentua exijitzea?
5. Egokia da UPV/EHUk atzera botatzea Aitziberren eskaera ZAParen jatorrizko dokumentua ez aurkezteagatik lekualdatzeagatik onartze-eskaera aurkezteko epean?
6. Zer organok ebatzi behar du Aitziberren lekualdatze-eskaera?
7. Zer errekurtso jar daiteke Aitziberren eskaera atzera botatzen duen ikastegiaren erabakiaren aurka? Noren aurrean eta zer eperen barruan aurkeztu behar du interesdunak?
8. Errekurtsoa arrazoitzeko, Aitziberrek bere espedienteko dokumentazioa kontsultatu nahi du eta haren kopia bat egin; horretarako aukera eman behar dio unibertsitateak?
9. Idazkaritzako langileak Aitziberrekin izan duen jarrera larria dela eta, zer egin behar du Ingeniaritza Eskolako zuzendariak UPV/EHUko funtzionarioaren jarrerak zigorra izan dezan? Zer arau-hauste administratibo izan daiteke administrazio eta zerbitzuetako langilearen jarrera? eta zer zigor mota ezar daiteke? Nork du eskumena diziiplina-espedientea irekitzeko? eta ebazteko?

2. Kasu praktikoa.

Nikole Larraondo UPV/EHUko karrerako funtzionarioa da. Administrari laguntzaileen eskalako da, eta 15. gradu pertsonala du.

Lehiaketa batean parte hartu ondoren, 18. mailako lanpostu bat lortu du; bi urte igaro ondoren, Nikolek eskaera egin du 18. maila hori sendotzeko, baina unibertsitateak ez dio onartu eskaera.

Urtebete geroago, 19. mailako lanpostu bat lortu du lehiaketa bidez; lanpostu horretan sei hilabete daramatzanean, eskatu du denbora hori kontuan hartzeko 18. gradua sendotzeko, eta kontuan hartzeko, halaber, 19. gradua sendotzeko ere.

UPV/EHUko Kudeaketa Orokorreko Teknikariaren Eskalan sartu nahiko luke Nikolek. Gainera, unibertsitateko master bat ikasi nahi du (dagoeneko lizentziatua da), aukera gehiago izateko urte batzuk barru unibertsitateak deituko duen lan-eskaintza publikoan. Beraz, masterrean onartzeko eskaera aurkeztu du. Masterreko Batzorde Akademikoak, Nikoleren eskaera aztertu ostean, atzera bota du, ez duelako jasotzen onartze-prozedurari aplikatzeko legediak eskatzen duen dokumentazio gutzia; izan ere, legedi horri jarraituz, Lizentziako titulua aurkeztea falta zaio.

Nikole ez dago ados Masterreko Batzorde Akademikoaren erabakiarekin, eta haren aurkako idazki bat aurkeztu nahi du. Lankide batek azaldu dio zer egin behar duen.

Bere idazkiaren ebazpenaren zain dagoela, HP enpresaren mezu elektronikoa jaso du, zeinean beherapen bat eskaintzen baitaio denda ofizialean erosten dituen ordenagailu eramangarrietan. Nikolerekin harremanetan jarri dira UPV/EHUko unibertsitate-master batean aurretiko izen-ematea egin duelako; masterraren bukaerako lana ondo egin ahal izateko tresnetako bat lortzen laguntzen diote hala. Oso beherapen garrantzitsua eskaintzen diote: jendearentzako salneurriaren % 50.

Bestalde, Masterreko Batzorde Akademikoaren ebazpenaren aurka aurkeztu zuen idazkiaren erantzuna jaso du: aintzat hartzen da Nikolek alegatutakoa, eta masterrean sartzeko eskaera onartu diote. Masterrean onartuta dagoela jakin eta matrikula egin ostean, Nikolek eskatu dio UPV/EHUri funtzio publikoarekin zuzenean erlasionatutako gaiak ikasteko baimen bat. Ez dago prozedura ebazteko eperik, eta, lau hilabete igaro direnean, eskaera ukatu dio UPV/EHUk.

Aurrerago, Nikole lanpostutik mugiarazi dute, lanpostuaren edukian gertatutako aldaketa batzuen ondorioz; lanpostu-zerrendan egindako aldaketek eragin dute hori, lanpostua lortzeko egindako lehiaketaren oinarrietako kasuei eragin baitie lanpostu-zerrenda berrituak. Nikolek eskaera bat aurkeztu du berehala beste lehiaketa batean parte hartzeko, eta ez du onartu eskaini diotena, hau da, bere eskalako lanpostu batera atxikitzea aldi baterako. Hala ere, UPV/EHUk jakinarazi dio ezin duela parte hartu lehiaketan, ez badira igaro bi urte beste lehiaketa batean parte hartu zuenetik. Horregatik, eskaini dioten behin-behineko lanpostua onartu du Nikolek. Lanpostu berriaren ordainsariak lehengo lanpostuarenak baino txikiagoak dira; Nikolek unibertsitateari eskatu dio diferentzia hori konpentsatzeko, baina unibertsitateak ez du onartu eskaera hori. UPV/EHUk adierazitako bi urteko epea igaro ondoren, Nikolek lehiaketa batean parte hartu du, eta 18. mailako lanpostu bat lortu du.

Handik denbora batera, ordaindutako eta dedikazio osoko lanpostu baterako aukeratu dute Nikole Leioako Udalean. Eskaintza onartu du, UPV/EHUri jakinarazi dio, eta unibertsitateak kargutik kendu du kargu berrian hasi aurreko unean.

Leioako Udaleko karguan hiru urtez aritu ondoren, Nikolek parte hartu du UPV/EHUren lehiaketa batean, eta 19. mailako lanpostu bat lortu du. Handik bi urtera, Nikolek berriro egin du eskaera UPV/EHU 19. gradua sendotzeko, baina unibertsitateak berriro bota du atzera haren eskaera, bi urte horietan ez delako egon lanpostuan.

Beste bi urte igaro direnean, Leioako Udaleko lanpostua utzi du. Handik hamabost egunera, lanpostu bat eskain diote Visesa Sozietate Publikoan, berehala hasteko. Nikolek interes handia du eskaintza onartzeko, eta horretarako eskaera aurkeztu du UPV/EHUn.

Erantzun galderei modu arrazoituan eta aplikatu beharreko araudiari erreferentzia eginez:

1. Nikolek 18. mailako lanpostua lortu zuenetik bi urtera, 18. gradu hori sendotzeko eskaera egin zuen, baina unibertsitateak ukatu egin zion. Egokia da UPV/EHUn uko hori? Zer gradu sendotuko luke Nikolek?
2. Urtebete geroago, 19. mailako lanpostu bat lortu du funtzionario horrek lehiaketa bidez; lanpostu horretan sei hilabete daramatzanean, eskatu du denbora hori kontuan hartzeko 18. gradua sendotzeko, eta kontuan hartzeko, halaber, 19. gradua sendotzeko ere. Egokia da Nikoleren eskaera?
3. Masterreko Batzorde Akademikoak atzera bota du Nikole masterrean onartzeko eskaera, ez duelako aurkeztu nahitaezko dokumentu bat. Bidezkoa da unibertsitatearen gaitzespen hori?
4. Zer idazki aurkez dezake Nikolek Masterreko Batzorde Akademikoaren erabakiaren aurka? noren aurrean eta zer epetan aurkeztu behar du?
5. Aztertu HPk Nikoleri bidali dion mezu elektronikoa datu pertsonalen babesaren ikuspegitik; neurriren bat har dezake Nikolek?
6. funtzio publikoarekin zuzenean erlazionatutako gaiak ikasteko baimen bat eskatu du Nikolek, baina UPV/EHUK baimena ukatu dio lau hilabete geroago; egoki jokatu du UPV/EHUK?
7. Nikole lanpostutik mugiarazi dute, geroago sortutako aldaketen ondorioz; bidezkoa da funtzionarioari lanpostua utzaraztea? Eta bidezkoa da UPV/EHUK ez uztea Nikoleri lehiaketan parte hartzen ez direlako igaro bi urte beste lehiaketa batean parte hartu zuenetik? Bidezkoa da Nikole ordainsarien diferentziagatik konpentsatzera ukatzea unibertsitatea?
8. Handik denbora batera, Leioako Udaleko lanpostu bat betetzeko aukeratu dute Nikole. Eskaintza onartu du, UPV/EHUri jakinarazi dio, eta udaleko lanpostu berrian noiz hasiko den jakinarazi dio; unibertsitateak kargutik kendu du une horretan. Arrazoitu egokia ote den Nikole kargutik kentzea, eta adierazi zer egoera administratibo esleitu behar zaion.
9. Bidezkoa da Nikolek Visesako lanposturako egin duen eskaera? UPV/EHUK zer egoera administratibo esleitu behar dio, eta zer ondorio izango ditu horrek Nikolerentzat?

3. KASU PRAKTIKOA

- 1. Jo dezagun unibertsitateak bi atal organiko dituela: batak aurrekontua biltzen du, eta besteak kanpoko diru-laguntzak jasotzen ditu.**

Aurrekontuaren atal organikoak 100 €-ko sarrerak eta 80 €-ko gastuak ditu.

Kanpoko finantziarioa kudeatzen duen atal organikoak 50 €-ko sarrerak eta 40 €-ko gastuak ditu.

- Zein dira unibertsitatearen aurrekontu-eremua eta eremua doituak?
 - Zer soberakin sartu ahal izango lirateke datorren ekitaldian?
- 2. UPV/EHU ez den unibertsitate bateko irakasle bat gonbidatu da hortz-inplantei buruzko hitzaldi bat ematera. Jarduera horretarako irakaskuntza-gastuen likidazioa aurkeztu du ikastegiko administrazioan:**
- Faktura eskatu behar zaio nahitaez?
 - Faktura aurkezten badu, beharrezkoa da % 21eko BEZa aplikatzea, jartzen ez badu ere?
 - Atxikipena aplikatu beharko litzaioke?
 - Atxikipena aplikatzen bazaio, zergak Espainiako estatuan ordaintzen dituela kontuan izanda, zer atxikipen aplikatu beharko zaio?
 - Zer dokumentu izango lirateke beharrezkoak, hirugarren gisa sortzeko?
 - Irakaskuntza horren ondoriozko dietak ordaintzeari dagokionez:
 - Unibertsitateak esleitutako agentzia ofizialen bidez kontratatu behar du nahitaez ostaturak irakasleak?
 - Irakasleak aurkeztu du autobideko txartela, egindako km kopurua, jatorduen tiketa eta taxiaren faktura:
 - Adierazi gastu horietatik zeinek duen atxikipena eta zeinek ez.
 - Gasturen batek atxikipena badu, zer motatako atxikipena du?
 - Ikastegiak erabaki du opari bat egitea irakasleari:
 - zer kapitulutan kargatuko litzateke gastu hori?
 - Eta UPV/EHUren produktu homologatu bat izango balitz, kapitulu berean sartuko litzateke?
 - Inplantologia Saileko irakasle batek bazkaltzera gonbidatu nahi du kanpoko irakaslea:
 - Unibertsitateari pasa diezazkioke irakasleak bi bazkarien tiketa? (Arrazoitu erantzuna)

- Kanpoko irakaslea bazkaltzera gonbidatu nahi duen UPV/EHUko irakasle horrek ere hitzaldi bat egin du ekitaldi berean:
 - ordaindu dakioke hitzaldi hori UPV/EHUko langile gisa jasotzen duen soldataz gainera? (Arrazoitu erantzuna)

3. Adierazi aurrekontuaren zer kapitulutan (gastuak edo diru-sarrerak) sartu behar diren eragiketa hauek:

- Hezkuntza-tasak kobratzea
- Eraikin baten alokairua ordaintzea
- UPV/EHUren aldizkako harpidetzak ordaintzea
- Nomina aurreratzea funtzionario bati
- Informatika-gela bateko altzariak ordaintzea
- UPV/EHU hitzaldi bat eman duen kanpoko irakasle bati ordaintzea
- Aduanako tasak ordaintzea liburuak inportatzen direnean
- Herentzia bateko diru-sarrerak

**4. Sail batek lehenbailehen software bat erosteko beharra du, baina sail horren 2019ko aurrekontuan ez dago krediturik 22202 azpikontzeptuan (software estandarra). Hala ere, nahikoa kreditu dago 22000 azpikontzeptuan (bulegoko materiala). Kasu horretan:
2.1 Software hori erosi ahal izango litzateke 22000 azpikontzeptuko soberakinarekin?
2.2 Ahal izango balitz, aldaketaren bat egin beharko litzateke aurrekontuan?**

Arrazoitu erantzunak

5. Unibertsitateko zerbitzu batek altzariak erosi behar ditu.

- Joan daitezke gertuen dagoen enpresara eta zuzenean erosi altzariak?

(Arrazoitu erantzuna)

- Erantzuna ezezkoa bada, zer alderdi izan behar dituzte kontuan enpresa hornitzailea hautatzeko?

- Bi aukera baloratu dituzte:
 - Bulego bakar baterako altzariak erostea, ez gainditzeko 10.000 €.
 - Solairu guztirako altzariak erostea: zenbatekoa 50.000 €-tik gorakoa izango litzateke.

Zer prozedura egin beharko litzateke kasu bakoitzean?